

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko maiatzaren 18a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Eskola publikoak hainbat kulturaren arteko trukea xede duen ekimena prestatu du
Alfredo Alvaro • «'Guaixe'-n lekurik ez duen informazioa landuko dugu 'Oixe!'-n»

10 urte entzuten, eta Gor

Iruñeko Gor disketxeak hamar urte bete ditu Euskal Herriko rock taldeen musika argitaratzen. Hamar urte bete dituzte, independentzian bete ere, inolako lotura ekonomikorik gabe. Hamarkada luze bezain oparoa izan da, Gorretik talde garrantzitsu anitz pasatu da: Huajoloteak, Urtz, Koma, Exkixu... Gor disketxe ttikia da, baina sasoiari dago, belarriak gortzeko inoiz baino indartsuago. Aurten, esaterako, Su Ta Gar, Skalariak eta Hemendik At taldeen lanak karrikaratu dituzte.



Lizarra ●

Kultur aniztasuna bultzatuz

Eskola publikoak hainbat kulturaren arteko trukea xede duen ekimena prestatu du

Ikastetxean egun dagoen kultur aniztasunaren adierazgarri gisa, Remontival eskola publikoak Kulturen Astea ekimena prestatu du estreinakoz, herrialdeen arteko trukea eta bizikidetzaz sustatzeko xedearekin.



Hainbat herrialdeetako haurrak, ikastetxean paratu duten erakusketaren aurrean. ● KRISTINA BERASAIN

KOLONBIA, PORTUGAL, EKUADOR, Costa Rica, Argentina, Peru, Errusia, Britainia Handia, Frantzia, Holanda, Nikaragua, Iran, Aljeria, India eta Kuba herrialdeetako umeak biltzen dira egun Lizarrako eskola publikoan Lizarraldeko umeekin. Kultur aniztasuna nabaria da ikastetxearen edozein gelatan, eta hemendik kanpoko herrialdeetako haurrak ikasle kopuru guztiaren %15 dira gaur egun.

Kultur aniztasun horren lekuko, Ginette, hamaika urteko neskatua. Bera Santo Domingon jaio zen eta urtebete darma Lizarran. Oso pozik dago hemen, eta lagunak berehala egin zituela dio. Honat ailegatu zenean harridura gehien sortarazi ziona hauxe izan zen: «Hemen jendea desberdin jantzen da, desberdin hitz egiten du eta desberdin jaten du; hala ere, niri gauza horiek gustatu egiten zaizkit».

Umeen azala kolore ezberdinetakoa izanik, bakoitzaren kultura ere ezberdina izaten da, eta kultur aniztasun hori ezagutzera emateko xedearekin, eskolako gurasoen elkarrekin Kulturen Astea antolatu du. «Umeen portaera zoragarria da, haien jarrera eredugarria da gizaki helduentzat; izan ere, guztiz onartzen dituzte bertze herrialdeetatik datozen umeak. Ikastetxean kultura ezberdinetako haurrak elkarrekin bizi dira, eta hori gizartera ere eraman nahi dugu, aberasgarria baita oso», adierazi du Asun Moreno gurasoen elkarrekin presidentea. «Haratago joan nahi dugu, mugak gainditu nahi ditugu, giza-

kia ikuspegi sakonago batetik ikusi behar dugula aldarrikatu nahi dugu. Komunean ditugun ezaugarriak kontuan hartuz, aniztasuna aberasgarria dela zabaldu nahi dugu».

Kulturen Astea hitz egin eta entzun ahal izateko tarteaz izatea nahi dute antolatzaileek. «Mintzatu eta entzun beharra daukagu, irakatsi eta ikasi, ikusi eta barneratu, eta ez soilik haurrek, baita guraso eta irakasleok ere», adierazi du Marta Estebanez amak.

Kulturen Astea joan den astelehenean hasi zen. Aste osoan ikastetxeko haurrek hainbat ekitalditan hartu dute parte, betiere, trukea, errespetua eta

onarpenera lantzea helburu duten jardueratan. Ipuin, joko eta jostailuen bidez adin guztietako umeek gelakide guztien kultura eta ohiturak ezagutu ahal izan dituzte. Erakusketa ere prestatu dute ikastetxean, eta bertan, ume bakoitzak bere etxean biltzen zituen objektuak paratu dituzte kulturen adierazgarri gisa.

Ekitaldi nagusia bihar izanen da, zabalik egonen den jai giroko egitarau zabal baten barnean. Besteak beste, ipuin kontalariak, antzerkia, jokoak, musika, dantzak eta lantegiak izanen dira, goizeko hamaiketatik aurrera.

→ Kristina Berasain

Basaburua

●
Ekitaldiz
betetako
udaberria

IRKAITZ GAZTE TALDEAK ETA Basaburuko kultur batzordeak dagoeneko abian jarri dute udaberri kulturala. Hareneko mendiak zeharkatu zituen ibilaldi batek eman zion hasiera, maiatzaren lehenengoan. Handik lau egunetara, umeen eguna egin zuten, Jauntsaratsen, eta hurrengo deialdiak biharko ditugu. Alde batetik, abesbatzak gustuko dituztenendako, Aralar Udal musika eskolak Sinonimine korala eramanen du Berueteko elizara; eskolako ikasleek parte hartzen dute hor. Emanaldia 18:00etan izanen da. Jarraian, bertsozaleek dute hitzordua; Gartzarongo elkartean, Jesus Mari Irazu eta Xabier Legarreta bertsolariak ariko dira bertsotan afaldu ondoren.

Maiatzaren 27an izanen da hurrengo ekitaldia. Urtero bezala, prozesio eguna izanen dute. Itxason ibarreko herri guztietakoak elkartu ostean, baselizara abiatuko dira prozesioan. Meza entzunda, otamena dastatu ahal izanen dute trikitixak alaiturik.

Egun nagusia, ordea, ekainaren hiruan izanen da, Basaburuko Eguna. Adin guztietakoak bilduko dira igande horretan, Igoan. Goiz osoan, artisauak, gosaria, musika, herri kirolak, haurrentzako puzgarriak eta, nola ez, bazkaria; egun bikaina igarotzeko osagai guztiak beraz. Denaren, azkeneko ospakizuna ere ez da makala izanen, Adinduen Eguna, ekainaren 24an: meza, Zurgai herri kirol taldeko erakustaldia, gazta dastatzea, bazkaria eta musika izanen dira Berueten, San Joan egunean.

→ Txari Eleta

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



Babaloreak eta baloreak ez dabilta, ibili ere, hagitx uruti. Nago ez direla kontu bera, erroan hala antzematen den arren. Elkartasuna har dezagun, kasu. Nola eraikitzen da beraz? Norberak lantzen omen du esparru hau; hunkidurak mahai gainean imini eta begira gelditzen gira. Hausnartu eta espazioan kokatzen dugu gure aukeraketa, dela ezkerrean, dela eskuinean, azpian, inon ez, zenbaitetan. Urteak daramatzagu aditzen; denbora luze daramate guri erraten elkartasun bakarrak eta eraginkorrenak bakoitzaren kontu korrontetikoa izan behar duela. Bakoitzak berea, alegia. Ni, ni, ni, neu, nero ni. Niaren garaian bizi gira, antza.

Badira, aldiz, ekintza zenbait aitzina eramateko balo-

Balorearen balioa

reak aintzakotzat jotzen direnak. M. Weberren tipologia klasikoan kausi dezakegu forma hau. Ekintza hau «balorean-etiko, estetiko, erlijioso edo bertzerik-oinarrituriko ekintza kontzientea arrazionala deitzen da». Estetika etikari gailendu zaio. Estetika bera ere kinka larrian dago, mugatua etikaren gabezia dela medio. Estetika jada ez da haragizkoa; hutsala da, antzerki txararen kumea. Estetika borobila da: hasiera eta akabera espazio-une berean kokatzen da. Hasiera negargarria da, bukaera lez.

Erljioan oinarritzen al da baloreak, gaur egun? (galdera erretorikoa da, baina erantzunen diot, ze arraio). Erljioak mendebaldean, noraezean dabilta. Katolizis-

moaren kasua da gurea. Bada, erlijioan oinarrituriko baloreak aurkitzea basoilarren lumak ikustea baino nekezagoa da. Are larriagoa bilakutzen da adin taulan beherantz jotzen dugun heinean. Gazteak, datozenak, multinazionalen desiopekoak ditugu, kritikaren lanabesa harturik alde egin dutenak salbu. Eliza katolikoak, beraz, badauka lana. Duen organigrama zaharkitua ezaguna dut, honen karira enpresa honen porrota aurreikusten dut denboran. Honek izugarri pozteñ nau, hipokrisian oinarrituriko sasi baloreek gauden mundua eraiki baitute. Nafarroa tradizionala halakoxea dugu. Aterakoia, beltza, lotsagabea eta makurra. Ni herexea nauzue. Herexea harroa, bai horixe!

Iruñerria ●

Eskualdea mendi bizikletaz

Izaera ekologikoa eta errebindikatiboa duen lehiarik gabeko bizikleta martxa egingen dute igandean

Nafarroa Kirol Elkarteak eta Iruñerriko Txirrindulariak taldeak antolatuta, igandean mendi bizikletaz egiteko Iruñerriko lehen martxa osatuko dute: 67 kilometro bizikletaren erabilera aldarrikatzeko, urak Iruñerrian egiten duen bideari jarraiki.

IRUÑERRIAN BIZIKLETAREN ERABILERA bultzatzea eta administrazioak bide berdeen aldarrikapena aintzat hartzea dira martxa honen helburuak. Martxa urtero egiteko asmoa dute antolatzaileek eta aldi bakoitza gai zehatz baten inguruan antolatuko dute. Horrela, bada, urak Iruñerrian segitzen duen zikloa du helburu aurtengo martxak. Noingo akueduktua, Untxumearrizko iturria eta hainbat zubi ikusiko dituzte parte-hartzaileek. Era berean, eguerdi aldera, geldiduna egingen dute Aratzuriko araztegian, urak nola garbitzen diren ikusteko.

Igandeko martxan 16 urtetik goitiko edozein bizikletazalek har dezake parte. Iruñeko Gazteluko plazan hasiko da martxa, 08:30etan, eta leku berean itxiko da helmugaratze kontrola, 15:00etan. Martxa luzea da; baina, antolatzaileen aburuz, zailtasun txikikoa da, aldapa handirik ez duelako. Denetara, 67 kilometro dira, baina bere burua horretarako gai ikusten ez duenak lasterbidea har dezake Zizur Nagusian, Iruñera Barañaindik joateko.

Martxaren %15a bidezidorretatik joanen da, %70a pistetatik



Bizikletaz ibiltzea bultzatuko dute igandean Iruñerriko martxan.
● MIKEL SAIZ

eta %15a errepidetik. Plazaola eta Irati trenbide zaharretatik ere ibiliko dira bizikletazaleak igandean. Izan ere, igandean igaroko diren zenbait bide, bizikletaz ibiltzeko aproposak, 'bide berde' bilakatzeko beharra aldarrikatzea da antolatzaileen asmoa.

Martxan izena emateko epea gaur bertan akituko da. Beraz,

adi martxa horretan parte hartu nahi dutenak: Nafarroako Kuxan propio zabaldu duten kontu korrontean 1.000 pezeta sartu behar dira; eta ordainketaren ziurtagiria zein izen emate orria Nafarroa Kirol Elkartearen utzi behar dira (Jarauta 78; faxa eta telefonoa: 948-224324).

→ Asier Azpilikueta

Iruñerriko bizikleta martxa

MAIATZAK 20, IGANDEA
Ibilbidea 67 km
Irteera Gazteluko plaza 8:30etan



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Kultur trukea eta Hendaiako Ikastola

Euskal Kultur Erakundearen eskutik antolatu diren hainbat ekitaldiren berri ematen du **Herria** astekariak bere azken zenbakian, «Euskal artistak Asiako erdialdera» izenburupean. Uzbekistango Frantziako enbaxadarekin Euskal Kultur Erakundeak izan dituen harremanen harira prestatu dituzte ekitaldi horiek. Aldizkariak esaten duenez, maiatzaren 9tik 17ra Tachkent hirian egin den nazioarteko musika jaialdian Maddi Oihenartek, Joseba Tapiak eta Ruper Ordorikak parte hartu dute. «Udazkenean, Euskal Kultur Erakundeak aste batez gomitatuko du

Uzbekistaneko talde bat, ikusgarrien emateko bai eta ere hemengo haur eta kantariekin lan egiteko», azaltzen du **Herria** astekariko artikuluak.

Bestalde, Kantuketan erakusketaren berri jasotzen du aldizkariak orrialde berean: «Baionan gertatu sutearen ondotik, erakusketaren soinuduna arraberritu da eta berriro publikoari idekiko da Zuberoan, maiatzaren 17tik goiti, hiru asterentzat, hain zuzen Urdiñarbeko animazio gelan. Erakusketaren soinudunari datxikola, bideoak ere ikusten ahalko dira, bai eta ere Elhuyar erakundearekin batera ekoiztu den

Kantuketan CD-Roma berria. Halaber, haurrentako bisitak egingen dira aste barnean. Ondoko egunetan jakinaraziko da Urdiñarberen ondotik erakusketaren non ibiliko den».

Bestalde, Hendaiako Ikastolaren urtemuga aipatzen du **Herriak**: «Hendaiako ikastola Iparraldeko lehenetarik izan zen. Aurten beteko ditu bere 30 urteak. Karia hortarat, erakusketaren bat agertuko du maiatzaren 22tik harat herriko mediatekan. Eta besta handi bat izanen da ekainaren 3an, besta guziz herrikoia, kantu, pilota partida eta beste».

Errakuntza kontzeptualak

Sawat-er filosofo-mistikoaren txaparen zain nago, adiskideok. Gaur asteartea da eta, nik dakidala, oraindik ez da mendi muinora igo bere jarraitzaile aztoratuei azaltzeko nolatan izan den Errealitatearen gailentze ditxoso hau. Zeren, aizue, nik behintzat Sawat-er Guaruaren LauEgiBorobilen zutabe-oinarria lurrean botata ikusten dut, hauts bihurtua, eta haizea altxatu egin da, aizue, eta ez dakit nola egingo duen (Maisuak) hauts hori guztia airean ezabatu ez dadin. Tribuarena, esate baterako. Maisuak esaten zigun bera eta bereak Hiritarrak zirela, gizabanakoak, hiritar askeen betebeharrak eta eskubideekin, eta aurkari zituenak, aldiz, Tribu, Etnia edo Herria zirela, gauza erdi-Mitiko bat, existitzen ez den iragan batean oinarritutako zer edo zer, etorkizun ezinezko batean ainguraturiko gauza huts bat, Entelekia bat. Inork ez zion esan, dirudenez, Tribulari horiek ere Hiritar bezala jokatzeko ahal zutela. Botoa, esate baterako, ematen ahal zutela. Akaso, bere LauEgiBorobilen oinarriko kontzeptu horrekin mozkorturik, aurrean zuena dena Mitoa eta Entelekia zirela benetan sentitu eta ideien atzetik dabilzan haragizko hiritarrak ez zituen ikusi. Horregatik, akaso, Maisuaren jarraitzaileek aurkaririk ez zutela jakin zuten bat-batean eta kontuak atera ondotik (EHren bozak Entelekia zirenez) irabaztea oso erraza zutela ikusi zuten, oso Hiritar gutxi, Gizabanako gutxi, gelditzen zirela botoa emateko eta, gainera, gehienak beren jarraitzaileak zirela konturatu ziren! Ikusteko aukera izan dugunez, Errakuntza kontzeptual izugarria izan da hori. Tribua ez da existituko baina Hiritarrak milaka joan dira bozkatzera. Sawat-er Maisuaren zain nago beraz. Jakin nahi dut bere oinarri apurtuan tematuko ote den. Mitoaren jatorriari bueltak eta bueltak emango ote dizkion berriz ere, edo Etorkizun Ezinezkoari lotuta segituko ote duen irrikan nago. Existitzen ez diren gauzez horrenbeste hitz egiten duen honek Errealitateari buruzko zer iritzi duen jakin nahi nuke behingoz. ●



Xabier Larraburu



Hamarkada entzuten

Iruñeko Gor disketeak hamar urte bete dituzten Euskal Herriko rock taldeen musika kaleratzen

Hamar urte hamarkada bat osatzen dute. Bada, Iruñeko Gor disketeak independenteak hamarkada bat bete du Euskal Herriko rock taldeen diskoak argitaratzen. Urte guti direla dirudi, baina euren musiketarik talde anitz pasatu da: Huajoloteak, Urtz, Koma, Exkixu, Flitter... Bere apaltasunean, Gor sasoian dago, inoiz baino luzeago, eta beste hamarkada luze bat betetzeko moduan.

MARINO GOÑIK BERE BIZITZAREN ERDIA rock taldeak bilatzen, aurkitzen eta euren diskoak karrikartzatzen eman du. 80 urteen hasieran, Iruñeko Soñua disketearen baitan Nafar Rock azpizigilua sortu zuen, eta horrekin, besteak beste, La Polla Records eta Motostaldeen diskoak atera zituen. Patxi anaia-aren laguntzaz, Soñua goitik behera eraberritu zuen, folkloretik rockera salto egiteko. Soñua berriak Barricada, Hertzainak, Jo ta Kie eta Kortatu taldeen diskoak plazaratu zituen.

Baina arazo ekonomikoek Soñua ito zuten. Errautsetatik, Goñi anaiek Oihuka sortu zuten. Tijuana in Blue, Potato, Tahures Zurdos eta beste hainbat talderekin egin zuten lan, baina ez nahi bezala, alor ekonomikoan erabateko muga zutelako. Zer egin eta nola egin erabakitzeko ahalmena izateko, Goñi anaiek (Marino, Patxi eta Antoniok) beste diskete bat sortu zuten, Gor, eta ordutik hamarkada luzea igaro da. 1991ko maiatzean atera zuten lehen diskoa, Los del Rayo taldearena.

Independentzia helburu

Gor disketea sortzeko arrazoi nagusia lotura ekonomikorik gabe erabakitzeko ahalmena izatea zen. Hamar urteren bueltan, lortu dutela uste du Marino Goñik. «Inoiz dudarik egon bada, orain argi dago. Gure bidea independentzia da, inongo multinazionalen ez aliatzea. Horrela bizi gaitzekela ikusi dugu».

Hamar urtean gorabehera anitz izan ditu Gorrek. Marinok dioenez, euren nekazariaren antzeko bizitza da, urteko uztaren arabera: «Batzuetan diskoak dituzu eta beste batzuetan ez. Eta ez dituzunean, bilatu behar dituzu funtzionatzen segitzeko. Saiatzen gara

urte berdintsuak izaten, baina normalena da urte onaren atzetik urte txarra etortzea. Hori orekatzean, orduan lortuko dugu gure helburua».

Talde «ttikietako» diskete ttikia

Egun, Gorren katalogoaren zama bost taldek hartzen dute: Su Ta Gar, Hemendik At, Berri Txarrak, Skalarriak eta Marea. Horiek dira salduenak, eta besteen galarak estaltzen dituzte. «Badira taldeak 50-60 ale baino gehiago saltzen ez dituztenak. Salmentak ez dira ailegatzeko kostuak ordaintzeko, ezta hurrik eman ere. Adibidez, OST. Osoo talde ona da. Baina kalitateak ez du derrigorrez saltzen. Bi aldiz saiatu gara, bi diskorekin. Badakit hirugarren disko bat prestatzen ari direla, baina nik ez dut esperimentua hirugarrengoz eginen», dio Marinok.

Gor disketeak aurten Hemendik At, Su Ta Gar eta Skalarriak taldeen lanak karrikaratu ditu. Laster Ken 7rena aterako du, ekainean *Aurtengo Gorakada 5*, eta udaren ostean, Berri Txarrak taldearen hirugarrena eta Cuerno de Chivoren lehena. Marino Goñi diskete ttikietan ibili da beti. Barricadak multinazional batera ihes egin zionean min hartu zuen, taldea be-



rea zela uste baitzuen. Baina gerora iritzi aldatu zuen. «Taldea gora egiten badu, zuk ematerik ez duzun gauza anitz eskatzen dizu. Gure lan taldea mugatua da, aurrekontu, denbora eta espazio mugatua. Barricadak 50.000 ale saldu behar baditu eta izugarriko merkaturatzea behar badu, hobe du alde egitea, horretarako mailarik ez baitugu».

Era berean, ez dituzte nahi berehalako multinazional batera joaten diren taldeak. «Jendeak, hasten denean, gora ailegatu nahi du berehala. Baina hobe da gutxi joatea. Lehenbizi, auzoko talderik onena izan behar duzu, gero zure hirukoa, gero eskualdekoa... Eta bide horretatik, talde handia izaten ahal zara, Negu Gorriak edo La Polla taldeen gisara».

Bizpahiru maketa egunero

Marinok talde horien bidea segitu nahi du ten makina bat taldearen maketak dituzten mahaia gaitz...

«Egunero bizpahiru ailegatzeko dira», komentatu du burumakur. «Maketena arazo handia da. Geroz eta maketa gehiago dagoenez, geroz eta gutiago entzuten dut. Gainera, maketak entzutea tortura da. Maketak ongi entzuz behar dituzu, arretaz. Maketatik gauza guti ateratzen dira, baina entzun beharra daukete jendeak gero deitzen duelako. Eta txarrena ez da maketak entzutea, baizik eta musikariak deitzen duenean zerbait erratea». Maketak baino gehiago, zurrumurruak, ahoz ahokoak, funtzionatzen du talde on bat aurkitzeko orduan. «Mahai gainean izan dituzte gero famatu diren taldeen maketak, eta ez diet batere kasurik egin». Beste batzuetan, bista hobea izan du Marinok, eta gauza interesgarriak deskubritu eta atera ditu Gorrek; hala nola, Huajoloteak, Koma, Skalarriak eta Hemendik At.

Orain bulegoko mahaia euskal heavy taldeen maketez beterik du. «Nahikoa da», kexatu da. «Su Ta Garren hamargarren kopia ikusten ari gara». Marinoren aburuz, jendeak segurua diren gauzetara jotzen du. «Gutik arriskatzen dute eta askok kopiatu, batez ere, nazioarteko talde handiei. Moden kontra joan behar dela uste dut. Rock and Rolla bumeran bat da. Duela hogeita urte modernoa zena hamar urtera zaharregia zen eta orain berriz boladan da. Akaso, egin behar litzatekeena da orain okerren ikusia dagoena. Eta gustatzen bazaizu, egin».



MIKEL SAIZ

Asier Azpillikue-ta

Disketearen harribitxia

MARINO GOÑIK KOMENTATUAK


- 1991:** Parabellum. 'Bronka en el bar'
«Gaztelaniaz kantaturiko pun-rockaren harribitxietako bat. Klasikoa da dagoeneko».
- 1992:** Urtz. 'Ekaitzaren garrasia'
«Urtz talde ezezaguna zen ordu arte eta urte hartako errebelazioa izan zen. Diskoarekin eta, batez ere, Negua datorrenean kantarekin ezagutu zituen jendeak. Eguberri haietako eta ondorengo urteko diskoa izan zen».
- 1993:** Kojon Prieto y los Huajolotes. 'Agarrensé que vienen los reyes del Napar-Mex'
«Beste bonba bat. Jende askoren elkartzetara irararaztu zuen. Izpiritu huajolotea ukitu gabe zegoen lehen disko horretan. Hori azalean ikus daiteke: giro izugarria du. Huajoloteen urtea izan zen».
- 1994:** Flitter. 'Stop miseria'
«Flitterren lehen diskoa bi urte lehenago aterata genuen. Baina honek konfirmatu zuen Flitterrek gauza gehiago egiten ahal zituela, estilo modernoagoa erabiliz. Diskoa ez zen askorik saldu, baina jendeak entzun zuen, eta askok kopiatu zuten».

- 1995:** Exkixu. 'Gaua heldu orduko' + Kabezabolo. 'Ya herá ora!'
«Exkixuren konfirmazioa asko saldu zuen, rockaren lehen postuetara iristeraino. Eta Kabezaboloren lehen diskoa gazteek punk musikaren klasikoak da, horren berria izanagatik ere. Leku askotatik gertatu, batez ere Hego Amerikatik, baina baita Frantziatik ere».
- 1996:** Koma. 'Koma'
«Koma loratu zen urtea. Maketa eta gero, gure lehen diskoa egiteko. Jende askorendako Komaren diskoa da, onena, gure lehen diskoa».
- 1997:** Hemendik At. 'Hemendik At'
«Hemendik At taldearen goazen kantarekin ezagutu zuten. Eguberrietarako aterata genuen disko osoa, benetako harribitxietako: Goazen, Gorriko, Egizan... Hemendik At-en klasikoak».
- 1998:** La Polla Records. 'En tu recto'
«La Pollak Gorrekin atera duen bigarren diskoa. Taldearen disko arrakastatsua izan da. Kantarik onenak biltzen ditu, baita argitaratu ere. La Pollaren una zen horrelako zuzenekoak egiteko».
- 1999:** Skalarriak. 'Klub Ska' + Berri Txarrak. 'Kastan'

Marino Goñi

«Gor sortzeko arrazoi nagusia lotura ekonomikorik gabe erabakitzeko ahalmena izatea zen, diskete independentea izatea, alegia. Hamar urteren bueltan, lortu dugula uste dut. Horrela bizi gaitzekela ikusi dugu, baita produktu duina eskaini ere»

- «Urte honetan disko gehiago daude aipatzeko, baina bi nabarmenak dituzte: Skalarriak eta Berri Txarrak taldeen konfirmazioak. Egiazatuta zuten lehen diskoak ez zirela batere txarrak. Bata zein bestea klasikoak dira dagoeneko. Skalarriak hemen baino gehiago Espainiako Estatuan, eta Berri Txarrak, Espainiako Estatuan baino gehiago hemene».
- 2000:** Marea. 'Revolcon'
«Marea fitxatu genuen RCA multinazionaletik pasatu eta gero. Goranzko bidean doan taldea, beste behin ere. Eta oso disko ona atera zuten gurekin, ikusiko dugu ea euren karre-rako onena ote den. Goizegi da hori errateko».
- 2001:** Su Ta Gar. 'Jo ta ke'
«Aurten disko garrantzitsuak izan ditugu, baina Su Ta Garrena da aipagarri. Eibarko taldearen arrakasten bilduma da. Urte luzez bata bestearen ondoan bizi izan gara, eta, azkenean, elkarrekin lan egiten bukatu dugu. Euskaraz kantatzen ari diren taldeen artean izarra da, eta eurekin egotea oso garrantzitsua da».



Beti geldituko zaigu Paris

Gin-tonica, analgesikorik hoberena. Ezker Abertzalearen hauteskunde porrotak eragin buruko mina gauditua nahian, Gerardo Monte Carlo tabernara bildu zen igande gauean, gin-tonic txoko bat hartzeko — hala idazten al da gin-tonic-en txikigarria?—. Nire mus bikotekide erradikalaren irudikoz, edari garden lakarra da mundu honetako analgesikorik onena. Nik, kuba-librea nahiago. Hain justu barraren aitzinean eserita izen utopiko sendagarri beltza ezarriraten ari nintzen Gerardo heldu zelarik. Izan ere, nik ere minberatuta nuen materia grisa.

Nire saminaren eragileak ez ziren EAJ eta EA, baizik eta Juan Kruz eta Larraitz, gure seme-alabak. Juan Kruzek Juan Kruz izena du gure aitona, gure aitak eta hirurok izen hori bera eduki dugulako. Larraitz Larraitz deitzen da bere ama bere garaian amona erdaldunen mingainak korapilatzen dituen izen ahoskagaitzarekin tematu zelako. Gure bi buruhandioi gero eta etxeko lan gehiago agintzen dizkiete. Igande arratsaldeak haiekin borrokan ematen ditut, egin beharrekoak egin ditzaten. Eta igande ilunabarrak ikasli-buruekin borrokan ematen ditut, egin beharrekoak egin ahal izateko beharrezkoa zaien laguntza eman ahal izateko. Kaben Lehen Hezkuntza, Bigarrena eta Ikastolen Elkartea —betiere, **Aingeru Epaltzaren** baimenarekin—.


%100, %75 eta %50. Gerardo alboko aulkian eseri zitzaidan, eta «Abuztuan Donostiara txangorik ez»

● MIKEL SAIZ



Zaldiko Maldiko, Iruñeko euskaldunen topagunea.

● EGUNKARIA



Lauren Bacall aktorea.

lakoniko batez agurtu ninduen. Mayor Oreja lehendakari izatea espero zuen, baskongadoei (sic) sostengua adierazteko manifestaldietara joan ahal izateko. «Ez nago hondartzara joateko moduan» ustez umoretsu batez erantzun nion, nire gerri-buelta gero eta zabalagoa seinatuz. Emazteak, gupidagabe, **Juanja Iturralderen** antz gero eta handiagoa dudala dio —hamahiru urte elkarrekin, eta gero hau—, eta Club Natacioneko gimnasia joateko esaten dit, inork Zaldiko Maldiko Elkartea kudeatzearen zama nire bizkar utzi aurretik.

Gerardok ez zuen irribarrerik meharrenik ere ezpaineratu. Begirada nitaz haratago iltzatuta zuen, telebistan.

Gasteizko Legebiltzarreko eserlekuen banaketa zer nolakoa zen azaltzen zuen grafikoa pantailaratzen ari ziren. Botoen %100 zenbatuta zuten, eta EHk bere botoen %50 besterik ez zuen. Gerardoren aurpegi zurbilduari kolorearen %50 baino gehiago falta zitzaion. Animatzen saiatu nintzen. Edo, hobe adierazita, animatuko ez nuela jakinagatik ere animatzeko ahalgina egin nuen: «**Arzalluzek** esan du EAJri botoa eman dieten EHko botoemale ohiak ez direla egindakoaz damutuko».

Espero ez bezala, Gerardo animatu zuen. Supituki, irribarre zabala egin zuen, eta haren masailek ohiko gorritasuna berreskuratu zuten. «Aleluya!

Aita Arzalluzen mintzoak berpiztu zaitu!», oldartu nintzaion. Gerardok isiltzeko keinua egin zidan, begirada pantaila txikitik aldendu gabe. Arestiko grafikoa arrastorik ez zen. Haren orde, **Isabel San Sebastian** ageri zen. Kazetari oxigenatuak bisiaia ilunduta zuen, muturra okertuta. **Mayor Orejaren** ausardiaz ari zen, galdu izanagatik ere hautagai popularrak zuen merituz. «Gaurkoaren kontura hemorroideek okerrera eginen diote honi», bota zuen Gerardok iribarretsu, zorionsu, gin-tonic urrupada luzea urdaieratu aurretik. Bogarti beti geratuko zaizkio Paris eta Laurent Bacall. Gerardori, Monte Carlo eta Isabel Sansebastian.



panpilonia zirkus

Iruñatura

M-13ko hauteskunderen emaitzak ikusita, Euskal Autonomia Erkidegoko ditxozoko giltza EAJ-EAren eskuetan dago. F. Laurent idazle frantziarraren ustez, «Iruñea! Espainiako giltza zintzoa da. Bertan, oina paratu ondoren igarotzen den hats bakoitzak bidaiariari lokarturiko historiaren oroimena dakarkio».

Victor Hugoren aburuz, agindurikoa baino gehiago ematen duen hiria da gurea. «Sekulan ere ez nuen ikusia eta karrika, etxe eta atari bakoitza ezagutzen dudalakoan nago. Hiri barnean kanpotik duzun irudia aldatzen da».

Dena den, Iruñearen enbaxadore literario nagusia munduan Ernest Hemingway estatubatuarra izan da *Festa* liburua besapean harturik. «Zazpi egunetan za-

rata ez zen amaitzen. Azkenean, dena irreala zen. Beti uste nuen oihukatu beharrean geundela. Festa bitartean buruz jokatzeari burugabekeria zen».

Somerset Maugham autore ingelesaren arabera, «Iruñea, bisitariari erakarri gutxi eskaintzen dion hiria da. Karrika mehar eta bihurriak ditu eta dendentan erakustoki galantak agertzen dira».

Bestetik, gure ziudadean bertan bederatzit urtez bizi izan zen Pio Baroja idazle donostiarra. «Iruñean negu batzuk eman nituen. Halako batean tenperatura hemeretzi gradu zero azpitik jaisten zen. Balkoian ezarritako kopa bat ardo sarritan izozten zen. Ez dut negurik hau bezain hotzik ezagutu, Pariskoa izan ezik».

● JOXE LACALLE



Idazle handi askok hartu dute Iruñea hizpide.

Pello Argiñarena

Bryce Echenique bestetara etorri zen. «Iruñea eta sanferminak deskalabru hutsa dira. Munduko parrandarik parrandatsuenak. Edonor etor daiteke. Aski da zahatoa altxatzen, oihuka kantatzen eta bultzaka ibiltzen jakitea».

Hona hemen literaturak ageri digun Iruñea. Ez dira agiri historikoak. Garai bateko argazkiak gehienak. Orrialdez orrialde irudikatutako iragana. Literatur puskak. Idazle kanpotarren — ez daude guztiak jakina— begi luzeek eta luma zorrotzek osaturiko unibertsoa. Letren unibertsoa. Ez da egiazkoa. Ez da gezurrezkoa. Fikzioa eta errealitatea nahasian. Liburuetan kontaturiko, agerturiko edo asmatutako Iruñean barnako ibilbidea. Idazle zenbaitek pausoz pauso mugatu dutena. Iruñea baino gehiago, Iruñeak daude.

Uzkitik pare bat ur litro xurgatzeko gai den Camilo Jose Cela Nobel sariaren hitzetan, «Iruñea hiri argitsua da, hitzez eta pozez betea. Haurrak jolasean, zaharrak eguzkitan eta neskameak barre-algaraka ikus daitezke».

Beste galiziar batek, Alvaro Cunqueirok, gure herrialdeko gastronomia goraiatzen du. «Las Pocholas jatetxean afaldu genuen. Hoberena piriniar gaztanberatxo bat izan zen, franko esnegaintsua, biguna, lurrindua».

Duela hoge urte, berriz, Alfredo

Alfredo Alvaro

☉ 'OIXE!' ALDIZKARIKO KOORDINATZAILEA

«'Guaixe'-n lekurik ez zuen informazioa landuko dugu»

● MIKEL SAIZ

Kazeta berri bat sortu da Sakanan: Oixe!, Bierrik elkarteren azken apustua.

Guaixe hilabetekariak bezala, Sakanako informazioa landuko du kazetak, aldizkarian lekurik ez zuten berriei lehentasuna emanaz. Berri laburrak, asterokoak, elkarrizketak, agenda... dena zortzi orrialdetan bilduta.

ALFREDO ALVARO IZANEN DA Oixel kazeta berriko koordinatzailea. Ekainean plazaratuko du argitalpen berriak lehen zenbakia, datozen bi asteotan herriz herri aurkezpena egin ondoren. Astekari berriak Guaixe aberastuko duela uste du Alvaro.

■ **Nondik sortu da Sakanako kazeta berri hau plazaratzeko ideia?**

Bierrik elkarrea 1994ko udazkenean sortu zen, eta urte hartako abenduan plazaratu zen aurreneko aldiz Guaixe aldizkaria. Hasieratik egon dira kezka, Guaixe aldizkaria hilabetekaria izanda, egunerokotasuna ez zelako behar bezala lantzen. Horren kontura hamaika aukera aztertutugu elkarrean, hilabetekari izatetik hamabostekari edo astekari izatera pasatzeko, betiere aldizkari baten formatuarekin, baina ez genekien nola. Batez ere aldizkaria hamabostean edo astean behin ateratzea oso garestia delako. Azkenean, formula hau topatu dugu. Hernanin gauza bera egiten dute, eta ongi funtzionatzten du, eta horregatik erabaki genuen astean behin aldizkari formatuko produktu berri hau ateratzea.

■ **Eta aldizkari berriak ez dio kalte egingen Guaixe-ri, kontuan hartuta argitalpen berriak ere Sakanako berriak landuko dituela?**

Ez dugu uste. Aldizkariak, baitetik, orrialde kopuruaren muga izanen du. Guaixe-k orrialde

gehiago ditu, eta modu zabalagoan landu ditzake gaiak. Gai ateporalak landuko ditu, sakonagoak, eta gogoetarako tartea ere eskainiko du. Batak besteari traba egiteko aukera hasieratik hartu dugu kontuan, eta kezka hori izan dugu, eta, horregatik, argi dugu bi produktuen arteko koordinazioa beharrezkoa izanen dela. Aldizkaria plazaratu ahala ikusiko dugu zer urrats egin behar dugun.

■ **Guaixe edukiaren aldetik egokitu egin beharko dela erran nahi du horrek?**

Bai. Orain arte hilabetekariko erredakzio batzordeak erabakitzen zuten zer eduki landu behar ziren zenbaki bakoitzean. Orain, noski, Oixe! hartu beharko du Guaixe-k kontuan. Aldizkari berri

gai gehiago sartuko dira, eta horrek ere Guaixe aberastuko duela uste dugu. Finean, hilabetekariak gaiak gehiago sakontzeko balioko du, erreportaia zabalak egiteko, eta, Oixel-k, berriz, asteroko herriz herriko berriak lantzeko, berri motzak, udal informazioa, astean sortzen diren berriak, eta, askotan, Guaixe-n lekurik ez zutenak,

aldizkariaren maiztasuna dela eta. Agenda izanen da, elkarrizketa laburrak, artikuluz luzeagoren bat, dena zortzi orrialdetan.

■ **Bi produktuek, beraz, lotura estua izanen dute, ezta?**

Bai, koordinatuta, lotuta egonen dira. Erredakzio batzorde bera izanen dute.

■ **Eta funtzionamendua no-**

soslaia

Alfredo Alvaro, Oixe! kazetako koordinatzailea, 29 urteko gazte etxarriarra da. Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen, eta Bierrik elkarera ailegatu baino lehen, AEKn aritu zen irakasle.

Bierrik elkarrean Beleixe irratiari aritzeko esatari baten bila ari zela jakin bezain pronto, frogatu egin zuen Alvarok, bai eta gaitzitu ere. Azken bi urteak, beraz, Beleixen buru-belarri sartuta eman ditu Etxarriko gazteak.

Ekainetik aurrera bi lan izanen ditu, Beleixen ez ezik Oixe! prestatzen ere ariko baita. Alvarorekin batera, beste lau langile ari dira Bierrik elkarrean, Guaixe, Beleixe eta Oixe!-n. Bazkideak 400 inguru dira gaur egun.

■ **lakoa izanen da, hau da, nola banatuko duzue eta zein izanen da finantzabidea?**

Oixe! doan banatuko da, eta gure asmoa da Sakanan egunkariak saltzen diren tokietan banatzea, ostiralero. Finantzaketa publizitatearen bidez eta elkarrean baliabideen bitartez lortzea da gure asmoa. Aste honetan zero zenbaki aterako dugu, argitalpena eta Bierrik elkarrean ezagutzera emateko asmoz. Zenbaki horren 5.000 ale plazaratuko ditugu, baina gero 3.000 ingurukoa izanen da tirada. Ekainean hasiko gara banatzen.

■ **Guaixe, Beleixe irrati eta orain Oixe! astekaria; elkarre multimedia bilaka-**

■ **tzen ari da Bierrik; telebista noizko?**

Oraingoz asmoak besterik ez daude, baina urratsak oso mantso egin behar dira. Aurten erabaki genuen kazeta aurrera ateratzea, eta horrekin eta Guaixe eta Beleixekin nahiko lan. Altsasun ere egoitza prestatzen ari gara. Aurten bukatuko dira lanak. Asmoa da tabernaren bidez autofinantzaketa lortzea. Beraz, oraingoz badugu nahiko lan.

■ **Irratiak, aldizkariak, telebistak... ez duzu uste tokian tokiko informazioaren esparruak nolabait gainezka egiteko arriskua dagoela?**

Guk ere kezka hori badugu

eta nik uste dut hori gaitzitzeko irudimena behar dela. Irratiari dagokionez, adibidez, bi orduko emisioarekin hasi ginen eta orain lakoa dugu, beste irratiarekin landu dugun trukeari esker. Gure esparruaz haratago jo behar da, batzuetan. Txikitik bere xarma du, baina proiektuak aurrera ateratzeko lan handia egin behar da. Finantzaketa-ri dagokionez, berriz, nik uste dut bide berriak bilatu behar direla. Ezin dugu dena publizitatearen esku utzi, esparrua txikia delako eta azkenean erre egin daiteke. Horregatik, autofinantzaketaren bideari ekin dioguguk.

→ Edurne Elizondo





Nafar Kronika

Aitor Arozena

Solidarioak Bardean

BARDEAN SARTU ETA MILITARRAK DIANATzat zuten Phantom Vietnamgo gudako hegazkin zaharrera kateatu dira bederatziko solidario. Honela, militarrek egin behar zituzten maniobrak galarazi zituzten. Duela bost urte, Itoizko urtegia egiten ari ziren lekura sartu eta Rotaflexaren laguntzaz kableak moztu zituzten solidarioek. Honela, oraindik urtegia egin gabe dago eta bertze hainbat ikerketa agertu dira urtegia egiteak ekarriko lituzkeen kalteak agerraziz. Lagun hauek zinpeko begiraleen, guardia zibilen edo militarren isekak, mehatxuak, kolpeak, irainak, atxilotzeak eta, beharbada, epaileek ezarritako kartzela zigor gogorak jasan beharko dituzte. Ama Lurraren alde egiteagatik lana, ikasketak edo dena delakoa, ordu, egun eta urte batzuetarako alde batera uzteko prest dagoen jende hau miretsi izan dut beti. Duela hogeitaka urte, nuklearren aurkako manifestaldian Gladis del Estal ekologista hil zuen Guardia Zibila. Bistan da urte urte, Ama Lurra zaintzeko nafarrok —nafar batzuk, bederen— izan dugun ardura eta jasan behar izan dugun zapalkuntza eta nekea. Gladisen lekukoa hartu dutenak badira. Zoritxarrez, guti dira solidario horiek martxan jarri dituzten bide baketsu eta ikusgarriak bere egiten dituztenak, baina segur naiz aunitz direla miresten eta errespetatzen dituztenak. Badira noski, tximaluze, alproja, hippy berri edo sasi ekologistak deituko dituztenak. Gaueko Telediaroan, Groenlandian bale ehizan dabilzan itsasontzi japoniar eta norvegiarrei aurre egiten dieten Greenpeaceko militanteei txalo egiten dieten berberak izaten dira aunitz. Jakina, bertze gauza aunitzetan bezala, urrutiko intxaurrak hamalau, bertara joan eta lau. Hemengo solidarioak politizatu egia daudela diote, eta nola ez, ezker abertzale ingurukoak direla, ez direla egiazko ekologistak... Bertze arlo aunitzetan gertatzen den kontua da hori: kanpokoia beti da eredu garria, baina etxean dugunean beti bada aitzakiaren bat hori kritikatzeko. Kontuak kontu, biba zuek!

gure aukerak

MUSIKA

- ▀ **Iruñea:** Amama Luisa & Dixielangileak Brass Band Karlos III pasealekuan izanen dira, gaur, 19:30ean.
- ▀ **Burlata:** Sen eta Ajariguan taldeek Euskal Herria peñan joko dute gaur, 22:30ean.
- ▀ **Elizondo:** Bol taldeak Kasino ostatuan joko du gaur, 23:30ean.
- ▀ **Zangoza:** Pop-rock lehiaketaren baitan, gaur Nadie Conoce a Nadie taldeak joko du, 23:00etan, Espejo tabernan, eta Nahikoa Da taldeak 00:00etan, Dos Caballos tabernan.
- ▀ **Tutera:** Sargento Piperra Lonely Hearts taldeak The Beatles omenduko du gaur, gaueko hamabietatik aurrera, Number Sixty garagardotegian.
- ▀ **Ettxalar:** Los Rosslis Herriko ostatuan izanen dira bihar, 22:30ean.
- ▀ **Agoitz:** Dikers eta Pottor's taldeen kontzertua izanen da bihar, Arkupe aretoan, gaueko hamabietatik aurrera.
- ▀ **Iruñea:** Ostegunean, Anari kantariak kontzertua eskainiko du, Erraldioen Txokoan, 20:30ean.

ANTZERKIA

- ▀ **Iruñea:** Donosti Teatro Sin Papeles taldeak globalizazioaren ondorioei buruzko *Glob... Glob... Glob!* bakarrizketa eskainiko du gaur, 20:00etan, Zabaldin.
- ▀ **Iruñea:** Bihar, Txirrista taldeak Aberre kantariak haurrentzako lana (titere eta antzezleak) taularatuko du, Mikael aretoan, 12:00etan.
- ▀ **Burlata:** Bihar, Kollins Klown taldeak *Gure oilo marimotroilo* eta *Txokolatzeko etxetxo* haurrentzako lanak eskainiko ditu, 18:00etan, kaputxinoen ikastetxean.
- ▀ **Antsoain:** Bihar, Els Pepsicolem taldeak herriko giroa musikaz eta dantzaz animatuko du, 19:00etatik aurrera, Lapurbide plazan.

KIROLA

- ▀ **Berriozar:** Igandean, XVI. Lantzeluze Krosa egingen dute, Basoa zirkuituaren inguruan. Ttikienak 10:30ean aterako dira, Eguzki plazatik, eta helduak, 11:30ean. Izen ematea gehienez ere lasterke-ta hasi baino ordu bete lehenago egin behar da, plazan bertan.

HITZALDIAK

- ▀ **Antsoain:** Astelehenean, Emilio Majuelo historialariak San

Cristobalگو ihesaldiaren gaineko hitzaldia eta bideoa eskainiko du, 20:00etan, Txinparta elkarte.

- ▀ **Iruñea:** Asteazkenean, Jasone Osoro idazleak *Korapiloak* bere azken liburua aurkeztuko du, 20:00etan, Zaldiko Maldikon.

ERAKUSKETAK

- ▀ **Etzarri-Aranatz:** Bihar eta etzi, lantzeria ikastaroan eginiko lanen erakusketa izanen da, Kultur Etxean.
- ▀ **Iruñea:** Pablo Cornejoren mar-

golanen erakusketa Pintzel galerian dago ikusgai hilaren 26a arte, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

- ▀ **Elizondo:** Emakume afganoen beloa jasotzea izenburuko 27 argazkien erakusketa Arizkunenea kultur etxean egonen da, hilaren 22tik 26ra, 19:00etatik 21:00etara.

- ▀ **Iruñea:** Koldo Agarraberes margolariaren *Laberintoan* lana Arte Eskolako erakusketa aretoan izanen da ikusgai hilaren bukaera arte, asteleheneetik larunbatera, 18:30etik 20:30era.

● INAKI VERGARA



Gagesekin maitemindurik

Iruñeko Udal txit prestua lanpeturik dabil azkenaldian hiriko kale garbietatik hainbat oroigarri kentzen. Besteak beste, Arrotxapeko bizilagunek auzokide guzien lana omentzeko Maiteminduen parke berrian paratu zuten oroigarria kendu du Udalak. Bitxia benetan Udalaren jarrera sinbolo batzuen kentzeko eta beste batzuen mantentzeko. Ezkaba aldizkariak bultzaturik, duela pare bat hilabete, Arrotxapeko bizilagunek lortu zuten Udalak Gages Kondearen parkeari izena aldatzea. Tradizioari jarraituz, Maiteminduen parkea izena jarri zioten, ondoan Maiteminduen pasealekua deritzon bidea baitago. Bada, oraindik ez dizkiote parkeari izen zaharreko plakak kendu (argazkia lekuko). Oroigarria kentzera joan zirenean izen itsusiko plakak aldatzea besterik ez zuten.